

Askatasuna izeneko aberria

1920ko martxoaren 8an, María Celeste González del Valle y Fernández de Miranda Oviedon jaio zen, Vega de Anzo markesen lehenengo alaba. Etxean Celeste deitzen zioten. Txiki-txikitatik ume azkarra eta bihurria zen. Garai hartako markes-alaba bati zegokion heziketa ematen ahalegintzen baziren ere, Celestek ez zuen gustuko zurruntasun eta diziplina hura. Ez zituen atsegin neskaxa aberatsek erabiltzen zituzten jantziak, eta nahiago zuen mutilekin jolastu; zapaburuak harrapatzen edo mendian zuhaitz-adarrez egindako txabolak eraikitzen. Hori guztia, noski, bere maistra pertsonalaren kontrolpetik ihes egitea lortzen zuenean. Celesteren aitak argi zuen haren etorkizuna; Quiroseko markesen seme nagusiarekin ezkontzea. Bi familien arteko ezkontza estrategikoa izango zen, bai ekonomikoki bai politikoki, eta familia berria Asturiasko aristokraziaren erreferente bihurtuko zen.

1934an, Asturiasko meatzariak enpresaburuen eta eskuindarren aurka altxatu ziren, eta aristokraziak prest egon behar zuen egoerari aurre egiteko. Baina Celestek beste asmo batzuk zituen; Asturiasko mendiak maite zituen eta bertara joan nahi zuen bizitzera. Ahal zuen guztietan mendira joaten zen; han aurkitzen zuen babeslekua. Ez zuen gustuko markes-alaba baten bizitza, eta, 15 urte bete berritan, meatzarien matxinadaren erdian, arropa apur bat eta ohe azpian gordetako diru pixka bat hartuta, etxetik ihes egin zuen.

Lehenik, Mieresko meatzeetatik zetorren ikatzez betetako kamioi batean sartu zen ezkutuan, eta, guztiz belztuta, Gijonen jaitsi zen. Handik autobusez Cangas de Onisera joan zen, eta ondoren Riofrio aldera abiatu zen asto gainean. Bertan Pelayo izeneko artzain bat ezagutu zuen, eta haren morroi modura aritu zen lanean. Familia aberats baten erosotasunak alde batera utzi, eta Asturiasko mendietako herrixka batean artzain bizitza gogorra hasi zuen. Hala ere, Celeste zoriontsu zen; bere etorkizunaren jabe zen, eta inork ez zion aginduko zer eta nola egin. Familiak haren bila jardun zuen, baina ikerketa askoren ondoren, Celesteren arrastoa Gijonen galdu zuten.

Urtebete igaro ondoren, Espainian militarrek estatu-kolpea eman zuten. Hasieran Afrikan eta gero penintsulan, eta pixkanaka-pixkanaka lurraldeak bereganatzen joan ziren. Espainia bitan zatitu zen: alde batetik, Errepublikaren aldekoak; bestetik, altxamenduaren aldekoak, nazionalak deituak. Iparraldeko zenbait tokitan Errepublikak hasierako oldarraldiari eutsi zion, eta Asturias izan zen horren adibide. Gerra piztean, gizonek armada baten edo bestearen alde egiten zuten, eta emakume gutxi batzuek ere bai. Celestek argi zuen bere hautua: Errepublika; emakumeen eskubideak, berdintasuna eta askatasuna defendatzen zituen ereduak. Milizia komunistetan borrokatu zuen, baina Asturias nazionalen esku erortzeaz zegoela, ihes egitea lortu zuen itsasontzi bateko bodegan ezkutatuta. Harrapatuz gero, heriotza-zigorra edo, agian, familiara itzultzea izango zituen zain.

Frantziako La Rochelle hiriko portura iritsi zenean, berriro arnasa hartu zuen. Handik Bordelera joan zen, eta bidaia luze baten ondoren Alpeetara heldu zen. Han berriro artzain bizitzari ekin zion. Frantsesa ikasi zuen, bere artaldea sortu, eta gaztagintzan hasi zen. Astean behin Grenoblera joaten zen gazta saltzera. Ez zuen ondasun material askorik, baina zeukana nahikoa eta gehiago zenez, aberats eta aske sentitzen zen.

1945ean, Europak beste lurrikara politiko bat bizi izan zuen. Adolf Hitlerrek gidatutako Alemania naziak Polonia inbaditu, eta Bigarren Mundu Gerra hasi zen. Laster, gerra Frantziara iritsi zen, eta aitaren batean naziek herrialdea okupatu zuten, Pétain mariskala buru jarrita. Celestek, ordurako eskarmentua zuenez, Frantziako erresistentzian borrokatu zuen. Mendian ibiltzeko gaitasun handia eta armen erabileran trebetasuna zituenez, talde txiki bateko buru izendatu zuten. Azpiegitura naziak suntsitzen zituzten, eta ondoren mendira ihes egiten zuten. Horrela bizi izan ziren lau urtez, aliatuek Frantzia askatu zuten arte.

Gerraren ondoren, Europa suntsituta geratu zen. Celestek Sobietar Batasunean bizitzea amesten zuen, berdintasunaren eta justizia sozialaren ikur zela uste zuelako. Frantziako erresistentzian ezagutu zuen Rita izeneko emakume poloniarrekin batera hara joan zen. Han, Pablo Arias asturiarra ezagutu zuten, Espainiako Alderdi Komunistako kide ohia eta Sobietar Batasuneko armadako buruetariko bat. Hari esker, Celeste eta Rita armadako instruktore bihurtu ziren, eta Moskuko eskola militarrean lan egin zuten. Sobietar herritartasuna lortu zuten, eta oso ondo ikusiak zeuden biak ala biak. Hala ere, Celestek ustelkeria kasu bat ikusi zuen. Armadako jeneral batek armak ezkutuan beste herrialde batzuei saltzen zizkion eskupekoen truke. Celestek ez zuen izan zalantzarik izan eta jeneral ustel hura salatu egin zuen. Baina jenerala oso botereitsu zen eta mendekua hartu zuen. Biei espioi izatea leporatu zien eta poliziak eta epaileek jeneralaren bertsioa berretsi zuten. Gezur haren ondorioz, Siberiako Perm-36 *gulagera* bidali zituzten. *Gulagak* Sobietar Batasuneko kontzentrazio-eremuak ziren eta bertan gobernuaren etsaiak zigortzen ziren. Baldintzak izugarriak ziren: gosea, hotza eta miseria. Egunean jatordu bakarra izaten zuten eta ohikoa zen zizareak agertzea janarian. Baina Celesteri min gehien traizioak egiten zion; hainbeste amestutako aukera politikoak bizkarra eman zion. Berak ustez borrokatu zuen ideia bat-batean desegin zen azukre koxkor bat kafean desegiten den moduan.

Gulagak kontzentrazio-eremuak izanda ere ez zeuden oso zainduak. Ez zegoen behar handirik zaintza berezia egiteko bertatik ihes eginda ere zaila zelako bizirautea. Siberian aurkitzen ziren; hurbilen zuten herrixkak ehunka kilometrotara zeuden. Temperatura inoiz ez zein igarotzen hamar gradu zero azpitik. Norbaitek ihes eginez gero ere bidean hiltzeko aukera handiak zituen inora heldu baino lehen. Baina azkenean, ihes egitea erabaki zuten; ez bazuten aukera hori baliatzen *gulag* hartan hilko zirela uste zuten; hotzez edo gaixotasun baten ondorioz. Otsaileko gau ilun batean abiatu ziren, janari apur batekin. Gosez eta hotzez ia hiltzekotan zeudela, erbi bat harrapatu eta jan zuten eta aurrera egiteko indarra izan zuten. Azkenean, Kuchino izeneko herrixkara iritsi ziren. Bertako herritarrak berehala konturatu ziren *gulag* bateko iheslariak zirela eta, poliziak laguntzen harrapatuz gero haiek ere *gulagen* batera bidaliak izateko beldurrez ez zieten laguntzen. Noraezean zebiltzala Vladimir izeneko errementari baten etxera heldu ziren eta hark ostatu eman zien.

Vladimirrek Lehen eta Bigarren Mundu Gerran borrokatu zuen Ejertzito Gorrian; Sobietar Batasuneko indar armatu nagusian. Sutondoan kontatzen zituen Stalingradeko guduan jasan zituenak eta aspertuta eta gogaituta zegoen askatasunaren alde hainbeste eman eta gero, ordeztu miseria eta gosea baino ez zituelako jaso; horregatik eman zien bere laguntza. Baina Rita tuberkulosia zuen eta hil egin zen. Rita duintasunez lurperatu eta Vladimirren laguntzarekin Finlandiara ihes egitea lortu zuen Celestek. Handik Suediara, Danimarkara, Alemaniara eta berriro Frantziara joan zen. Azkenean, polizoi modura itsasontzi batean Argentinara heldu zen.

Argentinan, asturiar errepublikazale erbesteratu baten familian hartu zuten Kordoba hirian. Argentinan Peronismoa aurkitu zuen. Juan Domingo Peron militar ohiak sortutako mugimenduak, langileen egoera hobetzea zuen helburu eta kapitalismotik eta komunismotik bereiz izango zen demokrazia soziala sortzea zen bere xede nagusia. Bazuen beste bitxikeria bat Gobernu hark; Peronen emazte Eva Duarte, *Evita* moduan ezagunak zuen xarma berezia. Presidentearen emaztea emakume oso ekintzailea zen eta berdintasunaren defendatzaile sutsua izan zen emakumearen boto eskubidea izanik bere borroka garrantzitsuenetariko bat. Celestek Argentinako Hegazkinen Fabrika Nazionalean lana aurkitu zuen. Katean lan egiten zuen eta bertan hegazkinak frogatzen zituen militar ohi batekin egin zuen topo; José Rodolfo “Rorro” de la Vegarekin. Rorrorekin maitemindu zen eta ezkondu egin ziren. Rorro peronista amorratua zen eta Argentinari duintasuna ekarri zion presidentea miresten zuen. Ameriketako Estatu Batuen politika inperialistari aurre egin zion argentinari ausarta zela kontatzen zion Celesteri eta honek txundituta entzuten zion Latinoamerikako politikari buruzko istorioak. Celeste berriz zoriontsua zen; modu askean bere bizitzako gizona aurkitu zuen eta herrialde aske eta eredu garri baten bizi zen non justizia soziala zen iparrorratz. Diru apur bat aurreratu zutenean baserri bat erosi zuten hainbat abelbururekin. Rorrok hegazkin txiki zahar bat ere erosi zuen eta, ilunabarretan Argentinako lautada zabalak erakusten zizkion Celesteri Rita izena jarri zioten hegazkinean.

1953ko Irailaren 23an Celestek inoiz ahaztuko ez zuen egun beltza gertatu zen; Iraultza Askatzailea. Eduardo Lonardi eta Pedro Eugenio Aramburu militarrek estatu kolpea eman eta Juan Domingo Peron agintetik kendu zuten Ameriketako Estatu Batuen laguntzarekin, eta Argentinaren garairik ilunenetariko bat hasi zen. Rorro desagertu egin zen Peronen aldeko manifestazio batera joan ondoren, eta militarrek Celesteren ondasunak konfiskatzeko prozedura abiatu zuten. Orduan, Celestek hegazkina hartu eta ihes egin zuen.

Kondairak dioenez, Rita hegazkina Latinoamerikako hainbat herrialdetan ikusi izan da: Bolivia, Txile, Ekuador, Paraguai eta Brasilen. Azkenekoz 1964ko maiatzaren 7an ikusi omen zuten Perun. Ordutik, ez da berriro agertu.

Bere izenak dioen bezala, Celestek zeruan aurkitu zuen askatasuna. Lurreko gizakien ergelkeriaz nazkatuta, zerua hartu zuen aberritzat, eta, diotenez, gaur egun ere gure buruen gainetik dabil. Badirudi azkenean Celestek aurkitu zuela bilatzen zuen askatasuna.

Agian, askatasuna ez da leku bat. Agian, askatasuna zerua da.

TXERKEI